

NOLA ULERTU IZAN DA GARAPENA ORAIN ARTE?

(Denbora: 60 minutu)

Garatzeko bidean dauden herrialdeetan azken berrogeita hamar urteetan gertatu dena aztertuz gero, begien bistakoa da gizartean eta ekonomian eraldatze handiak gauzatu direla. Baieztapen horri eusteko, nahikoa da oro har garapenaren adierazgarritzat jotzen diren zenbait gertakari aztertzea. Ekoizpenaren modernizazioa eta dibertsifikazioak, landaguneen teknifikazioak, urbanizazioak, garraio sareen eraikuntzakk eta komunikazio sistemen modernizazioak, besteak beste, argi erakusten dute garapena izan dela; berdin gertatzen da, beste zenbait fenomeno sozialekin: eskola matrikulen kopuruak gora egin izana eta umeen hiltze tasak behera egin izana, besteak beste.

Hala ere, horren parean beste errealitate bat dagoela antzeman daiteke, egunero gezurtatzen duena garapen itxura hori: biztanleriaren zati handi bat txirotasun mugaren azpitik bizi da; udalerrri askotan ez daukate edateko urik, argindarrik eta oinarritzko osasun zerbitzurik; biztanle askok eta askok ez du lanik eta pertsona asko haustura handi batek bereizten ditu: gutxi batzuk oso aberatsak dira; biztanleen gehiengoak, aldiz, baliabideen zati txiki bat besterik ez du jasotzen eta bere etorkizuna bideratzeko botere gutxi dauka edo ez dauka bat ere.

Indarreko garapen ereduen beheko ezaugarri hauek gaur egun munduan dagoen egoera erakusten dute hein batean:

- Eredue horien arabera, gizakiok zenbait behar daukagu, oinarritzkoak eta bigarren mailakoak bereiztuz hierarkizatzen direnak. Oinarritzkoak dira bizirik irauteko eta gutxieneko ongizate materiala lortzeko ase behar ditugunak. Bigarren mailakoak, ordea, dira, garapenari dagokionez, oinarritzkoari erantzun zaienean baino begiratu behar ez direnak. Gizakion premien ikusmolde horrek azpimarratzen du garapen ekonomikoa dela funtsezkoa, eta garapenaren alde soziala ekonomikoaren ondorio gisa etorriko dela edo haren ondoren baino ez dela bilatu behar.
- Eredueon ikuspuntutik, natura ondasun agortezina da, eta ondasun materialak ekoizteko baino ez du balio. Ikusmolde horren arabera, natura mendean hartu eta erabili egin behar da. Horrek ekarri du natur baliabideak zentzugabe erabiltzea, ezin konta ahala animalia eta landare espezie deuseztatzea eta ingurumena kutsatzea; horren ondorioz, zalantzan jarri da etorriko diren belaunaldien bizirik irauteko eta naturaz gozatzeko aukera.
- Ondasun materialak ekoizten jartzen dute arreta, eta garapena eta ekoizpenaren hazkundea gauza bera balira legez hartzen dituzte. Ikusmolde horrek kontsumoaren eta xahutzearen kultura sustatu du.
- Erakunde abstraktuegiak edo orokorregiak dira haren helburu: "komunitatea", "familia" eta abar; edo bestela, proposamen handiak: "enplegua" edo "etxebizitza" eratzea eta beste. Hala ere, ez ditu biztanle taldeen aniztasuna eta horien espezifikotasuna aintzat hartzen. Adibidez, ez da gauza bera 100 enplegu sortzea, edo gizon eta emakumeen berezitasunak kontuan hartu, eta berrogeita hamarna lanpostu sortzea gizonentzat eta emakumeentzat.
- Hauen itxaropena da ondasun materialen ekoizpenak zenbat eta gorago egin ondasunak gehiago banatuko direla biztanleria mailen artean (goitik behera).

- Alderdi teknologikoa azpimarratzen duen garapena sustatzen dute, baina horrek gero eta sofistikatuago eta garestiago egiten du lanpostuak eta ondasun materialak sortzea, eta horrela handitu egiten da herrialdeen arteko eta taldeen arteko desberdintasuna.
- Ondasun materialak besterik gabe erosita lortu daitezkeen xede gisa aurkezten dituzte, eta ez norbere eguneroko jardunaz lortzeko prozesu gisa; horrek bere izatearen zentzua galarazten dio gizakiari, burua nahasten dio.
- Guztion parte hartzerik gabe diseinatzeko dira. Garapen eredu horietan, boterea duen pertsona talde txiki batek komunitate osoari eragiten dioten planak egin eta erabakiak hartzen ditu, eta ez du biderik sortzen, ukitzen dituen gizarte taldeen interesak adierazi eta negoziatzeko.

BESTELAKO GARAPEN BATERAKO PROPOSAMENA: GIZA GARAPEN IRAUNKORRA

Giza garapen ereduak oinarritzko printzipio eta helburu hauek proposatzen ditu:

Oinarritzko printzipioak:

- Garapenak pertsonak hartzen ditu kontuan, ez gauzak. Hori da ereduaren funtsezko printzipioa.
- Garapena neurtzeko, bizi-kalitatearen gorakadari begiratzen zaio, eta ez gizakiok dauzkagun ondasunei edo ekonomia adierazleentz hazkunderari.
- Bizi-kalitatea oinarritzko giza premiak bultzatzean datza.
- Giza premiak ere indar bat dira. Ez dira premiak gabezia legez soilik ikusi behar; premiek pertsonak konprometitzeko eta mobilizatzeko ere balio dute, beraz baliabide bilakatu daitezke.
- Giza premiek gizarte testuinguru osoari eragiten diote. Kontua ez da premiak eta ustez horiek asetzen dituzten ondasun eta zerbitzuak erlazionatzea, baizik eta horiez gain, gizarte jarduerekin, antolaketa moduekin, eredu politikoekin eta premiak adierazten diren moduetan eragina duten balioekin lotzea.
- Giza premia guztiek dute lehentasuna, eta beharrak berberak dira pertsona guztientzat. Honako hauek dira: bizirik irautea, esku hartzea, elkar ulertzea, babesa, maitasuna, aisia, sormena, nortasuna eta askatasuna.
- Asetzen ez den edozein beharrek txirotasuna eta gizarte patologia sortzen ditu. Xtirotasuna ez da bakarrik ondasun materialik ez izatea. Bizirik irautea bera oztopatzen duen txirotasunaz gain beste mota batzuetako gabeziak ere izan daitezke, adibidez: babes gabezia (osasun sistema eskasek, genero indarkeriak, armen gorakadak eta abarrek eragiten dutena), maitasun gabezia (autoritarismoak, zapaltzeak eta abarrek sortua), elkar ulertze gabezia (hezkuntzaren kalitate eskasak sorturikoa), esku hartze gabezia (emakumeen aurkako bereizkeriak eta bazterkeriak eragindakoa, umeen kontrakoak eta gutxiengoen aurkakoak ekarritakoa), nortasun eta askatasun gabezia (balio arrotzak inposatzetik etorritakoa, politika errepresioaren bidez, behartutako atzeriratzekoak eta abarrek sortutakoa) eta beste batzuk. Beraz, gabezia horietako edozeinek intentsitate eta iraupen mugak gainditzen dituenean, eta giza premia oinarritzkoak asetzen ez

direnean, sistema osoari eragiten dion gizarte patologia eratzen da.

Giza garapenaren helburuak:

- Oinarrizko giza premiak bultzatzea: giza garapenak ez ditu baztertzen ohiko helburuak, esate baterako, garapen ekonomikoa; baina garapenaren beraren indar eragilea giza premiak asetzea izan behar da.
- Gero eta autodependentzia maila handiagoak ezartzea. Eremu eta arlo ezberdinetan pertsonen benetako nagusitasuna sustatuz, bide ematen da premiak asetzen eragina izango duten garapen prozesuak bultzatzeko. Horrek ez du inongo kasutan esan nahi herrialdeak, eskualdeak, toki erkidegoak edo kulturak baztertzea.
- Gizarte taldeak eta eragileak bultzatzea. Taldeek eta gizabanakoek beren baliabideei buruz erabakitzeke eta beren etorkizuna arautzeko ahalmena izateak, bereizkeriarik eta bazterkeriarik egiten ez duen garapenaren onurak behar bezala erabiltzea bermatzen du.
- Demokrazian sakontzea. Giza premiak asetzerantz bideratutako garapen bat ezin daiteke goitik behera egituratu; garapen hori gizarte eragileen jardueretatik bertatik atera behar da, eragile horiek garapenaren subjektu izatera igarotzen baitira.

Aniztasuna salbatzea da biderik egokiena gizarte orok dituen sormen gaitasunen gogoa pizteko, eta horrek eremu demokratikoak etengabe eraikitzea eta sakontzea eskatzen du

GIZA GARAPENA GENEROAREN IKUSPEGITIK

Aurrekoari generoaren ikuspegia gehitzean, hizpide dugun garapen mota mugatu egiten da. Beharrezkoa da zenbait jardura aldatzea: globalizazioak eskatzen dituen ondasun-metatze premiak, sektore handiak soldatadun enpleguetatik bazter uztea, giza lanari balioa kentzea nahiz eta lan orduak eta ekoizpenak gora egin, umeen zaintza bertan behera uztea, osasunari jaramonik ez egitea, ingurumena hondatzea eta erabakiak hartzeko gizarte taldeen ordezkartza deuseztatzea.

Gure abiapuntua da emakumeak erabat daudela sartuta egungo garapen ereduan: ezkutuan dauden lanaldi bikoitz eta hirukoitzak betetzen dituzte, soldata apalagoa jasotzen duten baina esku lan gehiago eskatzen duten lanetan aritzen dira, gero eta maizago ordezkartzen dituzte sektore publikoak beregain hartu beharko lituzkeen osasun eta komunitate zerbitzuak, eta, familiarentzako gutxiengo baldintza ekonomikoen truke, prozesu ez demokratikoei lotzen zaizkie.

Hori dela eta, genero ikuspegia gehitzea ezin izan daiteke soilik emakumeak gizarte talde gisa "aintzat hartzea", eta plangintzan inolako aldaketarik ez izatea.

Aitzitik, esan nahi du gizarte, ekonomia eta politika arloan ahalegin handia eginez, gizarte talde nagusi hori, hau da, emakumeak, altxatu, gaitu eta sendotu egin behar direla, mendekotasun harremanak eraldatu ahal izateko.

Ahalegin handi hori ez da doakoa, lan handia eskatuko baitio gizarteari maila eta arlo guztietan: ekonomia arloan, politikan, kulturen eta gizartean. Ahalegin horren ondorioak emakumeengan eragina izaten hasten direnean, gizarteari egingo dioten ekarpena itzela izango da, bai eraginkortasun mailan (gauza materialei dagokienez)

bai alde gizatiar, demokratiko eta iraunkorrari emango zaion lehentasunaren ikuspegitik.

Hona hemen, giza garapen demokratiko, iraunkor eta genero mailan zuzena denaren funtsezko lau osagarri:

- Zuzentasun printzipioa egun dauden desberdintasunak desagerrarazteko beharrari dagokio, horrela bermatuko baita genero zuzentasunaren kontzeptua.
- Iraunkortasuna ez dagokio bakarrik naturako baliabideak gordetzeari, baizik eta giza aukerak bultzatzeari ere. Aukera horiek bultzatzeko, umezaroko baldintza eta egoera emakumeen baldintzetatik bereizi behar dira: gizartearen iraunkortasunaren oinarria, besteak beste, umeen eta gazteen gizarte kapitalean dago; eta kapital hori gizartearen ardura da, ez emakumeena soilik.
- Ekoizpena ez da ulertu behar gizatasunik gabe, giza ondasuna esplotatzearen ondorio gisa; aitzitik, premiak asetzea ahalbidetuko duen ekoizpen gisa ulertu behar da, egoera negargarrian bizi direnen baldintzak aldatzeko eta guztiontzako etekinak ateratzeko balioko duen produktibitate gisa. Produktibitatea ebaluatzeko irizpideek genero baldintzak izan behar dituzte kontuan. Hala egiten ez badute, emakumeen lanari ematen zaion balio eskasaz itsuki baliatzen dira, eta emakumeei lan zama bikoitza eta hirukoitza ematen diete.
- Jabekuntzak esan nahi du pertsonen merkatuan izango dituzten eskakizunei eta lehiakortasunari aurre egiteko baliabideak izan behar dituztela, aukeratzeko modua izan behar dutela, ez dutela hain mendeko izan behar, buruaskiago izan behar dutela eta baldintza berdinak izan behar dituztela. Baldintza berdintasun hori lortzeko, nahitaez jarri behar dira abian baliabide, jarduera eta politika asko; nahitaez aldatu behar dira usadio eta ohiturak, arauak eta sinismenak, pentsamoldeak eta gizarte jarduerak.

Jatorria: GTZ (1995): *Herramientas para construir equidad entre mujeres y hombres. Manual de capacitación*. Santafé de Bogotá: GTZ.